

# Zinemaren ezkutuko genealogiak XV. Ikuspuntu jaialdiaren oinarrian

Datorren astelehenetik larunbatera egingo dute festibala • Aurrez aurre eta 'online' jarraitu ahal izango da • Sail Ofizialean 32 film lehiatuko dira

**Ane Eslava Iruñea**

«Izan ez ziren gauzak ere badira». Hori aldarrikatuko du aurten Ikuspuntu Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdiak. Esaldi hori hartu dute festibalaren hamabosgarren aldirako lelo gisa, eta ideia horretatik tiraka sortu dute nobedade nagusia: *Cartas como películas* (Gutunak pelikulak bezala) izeneko liburua. Festibalak 2018an abiatutako proiektu bat da, zeinarekin zinemagileen arteko gutunak bilduz joan diren, «pentsatu gabeko harremanak jaso eta genealogia zinematografiko berriak marrazteko». Aurtengo jaialdirako, bigarren liburukia argitaratu dute, La Fabrica etxearekin, eta zinemagile garaikideak dira protagonistak. Atzo aurkeztu zuten, Iruñeko Baluarte entzunaretoan, egitarauaren xehetasun guztiak emateko agerraldian.

Garbiñe Ortega zuzendari artistikoak azaldu duenez, liburuak hainbat irakurketa eskaintzen ditu: «Gutunen eta irudien arteko harremanak proposatzen ditu; denbora jauziak, esplizituak ez diren azpiatal tematikoak, omenaldi sekuentziatu txikiak».

Argitalpen horrekin batera, jaialdiaren itxiera ekitaldian *Las cartas que no fueron también son* (Izan ez ziren gutunak ere badira) ikus-entzunezko proiektu kolektiboa aurkeztuko dute, hainbat zinemagilek aurrez aurre ezagutu ez dituzten beste zuzendari batzuei eskainitako gutun filmatuekin osatutako proiektua. Parte hartzaileen artean daude Beatrice Gibson, Nicolas Pereda, Deborah Stratman, Lynne Sachs eta Diana Toucedo, besteak beste.

## Ohiko egitura

Jaialdiak zazpi atal izango ditu, urtero bezala: Sail Ofiziala, Atzera Begirakoak, Dokbizaia, Ikuspuntu Labs, Foku Garaikideak, X Films, eta Saio Bereziak. Aurrez aurreko ereduaren aldeko apustua egin dute, eta horretarako espazio berri bat gehitu dute, Plaza izene-



Teresa Morales, Rebeca Esnaola eta Garbiñe Ortega, atzo. IDOIA ZABALETA / FOKU

koa. Karpa bat izango da, Baluarte plazan kokatuko dutena, eta hainbat jarduera hara bideratuko dituzte. Halaber, saio batzuk *online* eskainiko dituzte, Festival Scope plataformaren bidez.

Sail Ofizialerako 900 lan baino gehiago jaso zituzten, eta 32 hautatu dituzte, hoguei herrialdeetako-

**'Dardara' filmak zabalduko du Sail Ofiziala, eta Jorge Moneo film labur batekin lehiatuko da**

ak. Sei film luze eta 26 labur dira, hamar programatan banatuak. Horien artean, Euskal Herriko bi zinemagileren lanak daude: Marina Lameiroren *Dardara* dokumentala, saila eta jaialdia irekiko dituen, astelehenean, lehiak kanpo; eta Jorge Moneo Quintanaren *In Ictu Oculi* (begiak heste-ko artean) laburra, lehia barruan.

Saio Berezien barruan dagoen Paisaia atalean ere Euskal Herriko zenbait lan aurkeztuko dituzte; zehazki, Lur Olaizolaren *Zerua blu*, Peio Agirrerren *Un retrato de N.B.*, Koldo Almandoz eta Maria Elorzaren *Quebrantos* eta Maria Sanchezen *Agña*.

X Films atalean, berriz, Irati Gorostidi, Tamara García eta Elisa Celda zinemagileak lehiatuko dira, eta iaz irabazi zuen pelikula estreinatuko dute: Alberto Graziaren *Tengan cuidado ahí fuera*. X Films proiektuak zuzendari berriei euren lanak aurrera ateratzeko aukera ematea du helburu, eta, aldi berean, ahots berriak Nafarroara hurbiltzea.

Egoitza nagusia Baluarte izango da. Aretoen edukiera %50ekoa izango da, eta aurrez aurreko saioetarako sarrerak eta Internet bidez ikusteko abonatuak salgai daude, [www.puntodevistafestival.com](http://www.puntodevistafestival.com) webgunean.